

Osoko bilkura

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2017ko azaroaren 24an.
Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose "B. Atxaga",
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso eta
Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Joseba Lakarra, Patxi Salaberri eta Joan Mari Torrealdai.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari (iritsi bitar-

tean); Joseba Lakarrak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Beñat Oihartzabalek ahala Miren Lourdes Oñederrari (11:00etatik aurrera); Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdai ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari (12:00etatik aurrera).

Batzarra, 2017ko azaroaren 24an, ostiralean, egin da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian. Bilkura hasi aurretik, Bernardo Atxagak zuzentzen duen *Erlea* aldizkariaren 11. zenbakia aurkeztu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Prentsa aretoan.

Soinu-jotzaileak ardatz hartzen dituen *Erlea* 11ren aurkezpenean esku hartu dute Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendariak, Joxan Goikoetxea akordeoilariak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta B. Atxaga zuzendariak.

Ondoren, euskaltzainak Diputatuen Kontseilua biltzen den batzar-aretoa hurreratu dira. Bertan, A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorriरिकoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, azaroko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Osoko bilkuran, Aztergaiei ekin aurretik, A. Urrutiak jakinarazi du Ibon Sarasola euskaltzainak Antton Abbadia Saria jasoko duela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. Gauzak horrela, Osoko bilkuraren izenean zorionak ematea proposatu du. Hala egin dadin erabaki da.

1. Osoko bilkurako (2017-10-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

A. Toledo euskaltzainak bilera-agiriaren 3. orrialdean ageri den <<Era berean, Osoko bilkurak erabaki du A. Toledo eta X. Videgain euskaltzainek eginiko proposamenak dagokion batzordeak aztertzea eta, egoki irudituz gero, bideratzea.>> pasarte ez dagoela ondo aditzera eman du. Honetara jaso dadin proposatu da: <<Era berean, Osoko bilkurak begi onez ikusi du A. Toledok eta E. Perezek eginiko proposamena, dagokion batzordearen esku utziz egitasmoa bideratzeko ardua. Gaiarekin amaitzeko, X. Videgain euskaltzainak eginiko proposamenak...>>. Eginiko zuzenketa onartu da Osoko bilkuran.

Bestelako oharririk dagoen galdetuta, ez da egon. Ondorioz, 2017ko urriaren 27ko Osoko bilkuraren bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika. “Errenazimentuko pertsona-izenak”. Zerrenda berria aurkeztu

Gaia jorrazteko Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkaria bilera-areto-
ra sartu da. Gogorazti duenez, urriaren 6ko Osoko bilkurak erabaki zuen oharrak egiteko beste epe bat, urriaren 20ra bitartekoa, irekitzea. Edozein gisaz, eztabaida-
gaia bi aukera edo gehiago dauden kasuetara mugatuta dago. Horrela, A. Mujikak aurkeztu du batzordeak egin duen berrikuspena. Araugaiak 58 pertsonaren izenak jasotzen ditu, eta bi aukera ematen diren kasuak 14 dira. Kasu horiek banan-banan berraztertu ondoren, zerrenda honela moldatzea proposatu du batzordeak:

Maiatzeko Osoko bilkuran aurkeztutakoa.	Gaurko bilkuran aurkeztekoa.
MOLDATU GABEKOAK (ALDAKETARIK EZ DUTENAK)	
Eckhart Maisua edo Eckhart von Hochheim	Eckhart von Hochheim edo Eckhart Maisua
Gonzalo Fernández de Córdoba edo Kapitain Handia	Gonzalo Fernández de Córdoba edo Kapitain Handia
Grekoa edo Domenikos Theotokopoulos	Domenikos Theotokopoulos edo Grekoa
Miguel de Cervantes edo Lepantoko besomotza	Miguel de Cervantes edo Lepantoko besomotza

MOLDATUTAKOAK	
Luis de León edo Frai Luis de León	Luis de León (ohiko izendapena: Frai Luis de León)
Lineo edo Carl von Linné / Linnaeus	Lineo (jatorrizko izena, berak bere buruari emana: Carl von Linné) / Linnaeus (forma latinizatua, bizidunen nomenklaturan erabiltzekoa)
Andrea Alciato edo Alciati	Andrea Alciato (Alciati ere deitua)
Ameriko Vespuzio edo Amerigo Vespucci	Ameriko Vespuzio (jatorrizko izena: Amerigo Vespucci)
Julio Zesar Eskaligero edo Giulio Cesare Scaligero	Julio Zesar Eskaligero (jatorrizko izena: Giulio Cesare Scaligero)
Martin Lutero edo Martin Luther	Martin Lutero (jatorrizko izena: Martin Luther)
Lorenzo Medici edo Laurendi Bikaina	Laurendi Bikaina (jatorrizko izena: Lorenzo Medici)
Paolo Veronese edo Paolo Veronakoa	Paolo Veronese (oin-ohar gisa euskarazkoa: Paolo Veronakoa -Verona hirikoa-)
Tomas Kempis edo Tomas Kempengoa	Tomas Kempis (oin-ohar gisa euskarazkoa: Tomas Kempengoa -Kempen hirikoa-)
Joan Jainkoarena, San edo Joanes Jainkoarena, Done	Joan Jainkoarena, San

Eztabaidan, hiru puntu nagusi aipatu dira. Batetik, “Miguel de Cervantes edo Lepantoko besomotza” moldeko lau kasuetan, aipatu da ez direla maila berekoak benetako izena eta izengoitia. Horregatik, “A edo B” gisa aurkeztu beharrean, beste era batera aurkeztea eskatu da. Adibidez, honela: “Miguel de Cervantes (izengoitia: Lepantoko besomotza)”. Bestetik, “Laurendi Bikaina (jatorrizko izena: Lorenzo Medici)” kasuan, jatorrizko izena eta izen moldatua dutenen sailean jarri beharrean (adibidez, “Martin Lutero [jatorrizko izena: Martin Luther] gisakoen kasuan), “Miguel de Cervantes” kasukoak bezala aurkeztea: “Lorenzo Medici (izengoitia: Laurendi Bikaina)”. Azkenik, “Linné/Lineo/Linnaeus” kasua oso konplexua dela aipatu da. Sinpletzea eskatu da. Honela izan litekeela aipatu da: “Linné (Carl von Linné) / Linnaeus (forma latinizatua, bizidunen nomenklaturan erabiltzekoa)”, parentesi arteko azalpena oin-ohar moduan jarriz.

Kasu horiek aztertzea eta abenduko Osoko bilkurari behin betiko zerrenda aurkeztea eskatu zaio Exonomastika batzordeari.

3. Exonomastika: Ordena militar eta ospitalarioen gizataldeen araugaia

2017ko ekainaren 30eko Osoko bilkuran aurkeztu zen historiako gizatalde nagusien eta ordena militarren eta ospitale-ordenen araugaia. Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea irailaren 8ra arte irekitzea erabaki zen. Ez da oharririk iritsi.

A. Mujikak gogorarazi du *hospitalario/hospitaller* adjektiboa (latinez, *hospitalarius*) jartzeko asmoa zuela batzordeak baina, *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ez dagoenez, Osoko bilkurari galdetzea erabaki zuela. Araugaiaren izenean berean ere ageri da, baina hor baluke konponbidea: *Ordena militarra* eta ospitale-ordenak. Hala ere, bi ordena horien izenetan jartzeko ez du balio, *militaris* eta *hospitalis* adjektiboak batera jarri behar baitira. Horregatik, *ospitalario* erabiltzen ez bada, “ordena militar eta ospitalekoa” jartzea beste aukerarik ez du ikusten batzordeak.

A. Sagarnak adierazi du konponbidea litzatekeela *Euskaltzaindiaren Hiztegian ospitalario* sarrera sartzea, lehenago aztertu zela, baina beharrezkoa ez zelakoan ez zela jaso, alegia, ez, berez, desegokia zelako. Adierazi du urtearen bukaeran aurkeztuko direla *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko azken sei hilabeteetako aldaketak, eta horien artean sar daitekeela *ospitalario* sarrera. Eskatu du Exonomastikako araugaia ez argitaratzea *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko bertsio berria plazaratu baino lehen. Gauzak horrela, *ospitalario* jarriko da arauan, eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* bertsio berria plazaratu ondoren argitaratuko da Exonomastikako araua.

4. Exonomastika: Munduko mitologia (Antzinatekoa izan ezik)

A. Mujikak adierazi du Antzinateko mitologia lehendik landu eta araututa dagoela, eta oraingoan munduko gainerako mitologia gainbegiratu dela. Batzordeak uste du izen gehienak oso ezezagunak eta erabilera murriztekoak direla eta ez dutela grafia-arazorik sortzen, hizkuntza nagusi gehienetan berdin idazten direlako, eta euskaraz ere bai. Horregatik, batzordeak ez ditu izen nagusi batzuk baino landu, ikusi duelako grafia-aldaketak hizkuntza batetik bestera gertatzen direla. Hori dela eta, oraingoan inken eta azteken mitologiako izen nagusiak sartu dira, eta haietaz gainera, Ipar Amerikako *Manitu* izena, mitologia germanikoko lau izen, mitologia zeltikoko beste bi (beste batzuk lehendik araututa daude) eta Asiako mitonimo gu-

txi batzuk, batez ere, hinduismoko nagusiak. Azkenik, mitologia islamikoko bost izen ere sartu dira.

Azalpenaren ondoren, galderen txandan, P. Zabaletak adierazi du mitologiako izenez gainera badirela erlijioeko pertsona-izenak ere zerrendan, hala nola Zaratus-tra eta Buda. Horregatik, esan du egokiago litzatekeela arauaren izenburua “Mundu-ko mitologia- eta erlijio-izenak” izatea.

Oharrak egiteko epea abenduaren 12ra arte irekitzea erabaki da Osoko bilkuran.

5. Esku artekoak

5.1. Euskaltzaindiaren eta UEUren arteko lankidetzahitzarmena. Bilbon izenpetu da, 2017ko azaroaren 23an. Bi erakundeak elkar ezagutzeaz gain, besteak beste, UEUk sorturiko testu-masa osoa (*Uztaro* eta abar) baliatuko du Euskaltzaindiak Lexikoaren Behatokitako. Era berean, UEUk kudeatzen duen INGUMA elikatzen lagunduko du Euskaltzaindiak argitalpenen, artikuluen eta jardunaldien berri emanez.

5.2. Patxi Uribarren eta Joan Mari Torrealdai euskaltzainak euskaltzain emeritu. Lehenak 2017ko urriaren 31n eta bigarrenak 2017ko azaroaren 24an bete dituzte 75 urte. Gauzak horrela, Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne erregelen 5.1 xedapenaren arabera emeritu izatera igaro dira. Ondorioz, bi hutsarteak iragarri dira, Arautegiaren 33. artikulua eta Barne erregelen 64.3 xedapena kontuan hartuz, aditzera eman da hutsarteak hornitzeko proposamenak hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izango direla. Era berean, gogorarazi da Arautegiaren 34. artikulua dioena: “Euskaltzain osoa izateko proposamendua hiru euskaltzain osok izenpetu behar du. Proposamenduaz batera, zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak di-tuen merezimenduak xeheki aipatuz”.

5.3. Euskaltzaindiaren Mendeurrena batzorde suntsikorraren lanak bateratzeko Ibon Usarralde hartu du Euskaltzaindiak. Euskaltzaindiaren Mendeurrena batzorde suntsikorrak eginiko proposamena aintzat hartuz, Zuzendaritzak Ibon Usarralde hartzea erabaki du. Erabakia hartzeko, Barne erregelek diotena hartu

da kontuan: (59.2 artikulua: “Egitasmoen arteko kudeaketa lanak koordinatzeko eta bideratzeko, bateragile berezia izenda daiteke”). I. Usarralde Luis Villasante Euskararen Ikergunean lanean hasi da, 2017ko azaroaren 3an.

5.4. Literatura arloa.

A. Urrutiak gogorazi duenez, Bilbon martxoan egin ziren XX. Barne Jardunaldietatik hona Euskaltzaindiaren Literatura arloa (Literatura Ikerketa eta Herri Literatura) bideratzeko ahalegina egiten ari da Zuzendaritza. Horiek horrela, aurrerantzean, Literatura Ikerketaren eremuan, bi egitasmo jarriko dira abian. Hauei buruzko xehetasunak aurrerago emango dira Osoko bilkuran.

5.5. Gaur banatuko diren argitalpenak. Hona hemen gaur banatu direnak:

Euskera 2016-2, ikerketa zenbakia.

Erlea 11.

José Ángel Chascoren *Sierra de Toloño, nexo de la Montaña y la Rioja Alavesa* (Izenak bilduma, 7).

Pirinioetako hizkuntzak. Lehena eta oraina. Bisitarien gida.

R. M. Azkue Sariak 2016.

5.6. Aurkezpenak eta bilkurak:

Azaroaren 30ean, Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak euskararen orainaz eta geroaz lankidetzan paratu duten *Hermes* aldizkariaren ale berezia aurkeztuko dute Bilbon, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan.

Abenduaren 19an, *Erlea* aldizkariaren 11. zenbakia aurkeztuko da Baionan, Euskal Erakustokian, 18:00etan.

Abenduaren 22an, Euskaltzaindiaren Osoko bilkura egingo da Bilbon, egoitzan.

6. Azken ordukoak

6.1. Arturo Campioni Nafarroako Urrezko domina. P. Zabaletak aditzera eman duenez, euskararen eta Nafarroaren alde eginiko lana aitortzeko, Nafarroako Urrezko Domina Arturo Campioni ematea erabaki du Nafarroako Gobernuak, beste pertsona batzuekin batera. UPNk, PSNk, PPK eta Ezkerrak mozio bat onartu dute domina hari ematearen kontra, eta gobernuari eskatu diote «berriro aztertze-ko» erabaki hori. Ezkerrak bat egin du oposizioarekin, esanez A. Campion «arrazista eta xenofoboa» zela. P. Zabaletak esan du garai bateko pertsonak esanak gaurko begiokin aztertzea eta testuingurutik ateratzea ez dela egokia. Testuinguru horretan, A. Campionek eginiko ekarpena azpimarratuz argitara eman diren artikulua aipatu ditu.

6.2. XXII. Jagon jardunaldia.

M. L. Oñederrak hizpide hartu ditu, azaroaren 17an, Gasteizen, Sustapen batzordeak antolaturiko XXII. Jagon jardunaldiko egitaraua, antolaketa eta parte hartzea. Sustapen batzordeak eginiko lana ere eskertu du.

Eta beste aztergaririk ez dela, 13:15ean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana